

## IDAZKARI NAGUSIAREN 35/2018 TXOSTENA

**Gaia: 2019. Urterako udal plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea**

Jurdana Uriarte Lejarraga, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak -Toki Administrazioetako Gaikuntza Nazionaleko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautu duenak- 3.3.d.6. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz, hurrengo **TXOSTENA** egin dut:

### **Aurrekariak**

**Lehena.-** Langileria teknikariak txostena egin du, sinatu barik dagoena.

**Bigarrena.-** 2018ko azaroaren 15ean Langileria batzordeak aldeko irizpena eman du.

### **Oinarri juridikoak**

#### **2.1. Aplikagarria den araudia**

- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Zuzendua
- Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legea
- Apirilaren 2ko 7/1985 Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea
- Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegile Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen
- Uztailaren 3ko 6/2018 Estatuko 2018. urterako Aurrekontu Orokorren Legea

#### **2.2. Argudio juridikoak**

**Lehenengo.-** Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Zuzenduaren 74. artikulua ezartzen du



“Administrazio Publikoek, besteak beste, lanpostuen izendapena, sailkapen profesionalaren taldeak, atxikiak dauden sektore edo eskalak, hornidura sistemak eta ordainsari osagarriak jasoko dituzten lanpostuen zerrenda edo bestelako antolakuntza-instrumentu bidez estrukturatu beharko dutela beraien antolaketa. Aipaturiko instrumentuak publikoak izan beharko dira”.

Ordainsariei dagokionean balorazioa egin beharko da.

**Bigarrena.-** Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 18.artikuluak honako hau dio “ Egitura organikoan egin daitezten aldaketak onartzeak, aldi berean, horiei dagozkien lanpostuen zerrendak onartzea ere eskatuko dau. Nolanahi ere, lanpostuen zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko dira lanpostuak.”

**Hirugarrena.-** Apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikulua xedatzen du Toki erakundeek haien erakundeko lanpostuen zerrendaketa egin beharko dutela funtzio publikoaren inguruko oinarrizko legediak dioenaren arabera. Gaineratzen du Estatuari dagokiola LPZak, lanpostuen deskripzioak eta beraien eraketarako bete beharreko baldintzak lantzeko oinarri hartu beharko diren arauak ezartzea.

Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126.4. artikulua dio LPZak funtzio publikoaren oinarrizko legedian jasotako edukia izan beharko dutela eta garatu beharko direla apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikuluan jasotako arauak oinarri hartuz.

**Laugarrena.** Uztailaren 3ko 6/2018 Estatuako 2018 urterako Aurrekontu Orokorren Legean ezarri diren mugak zaindu behar dira. Izan ere, horren 19.bat. artikuluan langile berriak sartzea mugatzen jarraitzen da bertan jaso denaren arabera, eta, gurean, ez da jasotzen ea birjartze-tasa 19.bat.2. artikuluan adierazitakoaren %100 baino handiagoa den, aurrekontuko eta zor publikoko egonkortasunaren helburuak eta gastu-araua bete



dirrelako baita %10 osagarria ere, zor finantzarioa amortizatuta dagoelako aurreko ekitaldiko abenduaren 31n, edo 19.bat.4. artikuluan adierazitakoaren %75 baino handiagoa, aurrekontuko eta zor publikoko egonkortasunaren helburuak eta gastu-arauek ez direlako bete.

Beraz, espedientean ez da aztertu birjartze-tasa.

**Bosgarrena.-** LPZren izaera juridikoari dagokionez, zenbait doktrina eta jurisprudentzia aldaketa jasan ditu, baina gaur egun "hartzaile zehaztugabedun jarduera ugariko ekintza" moduan kalifikatu izan da. Izaera juridikoa kontuan hartuz, jarraitu beharreko prozedurak hurrengo pausuak izango lituzke:

- a) Langileria saileko teknikariak txostena egin behar du
  - b) Langile Publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34 eta 37.1.c) artikuluek xedatutakoa betetzeko asmotan, negoziazio-mahai orokorrerekin LZPan lanpostua sortzea negoziatu beharko da. Ostera, plantillak ez ditu lanpostuetako oinarrizko ezaugarriak eta lanpostuaren okupaziorako baldintzak zehazten, aurrekontu-antolaketa duelarik xede bakar; horrenbestez, oinarrizkoa funtsa da Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikularekin eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Tokiko Entitateen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 4.1.a) artikularekin batera; ondorioz, ez dauka erakunde sindikalekin negoziatzeko beharrik.
- Espedientean negoziazio mahaiko akta falta da.
- c) Hizkuntza eskakizunaren inguruan, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.2.n artikularekin eta 6/1989 legearen 97.5 artikularekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikako txostena eskatu beharko da proposatzen den hizkuntza eskakizunaren inguruko nahitaezko eta ez loteslea den txostena egin dezan.
  - d) Erabaki proposamena egin beharko da
  - e) Udal kontuhartzailearen txostena beharko da
  - f) Idazkariaren txostena beharko da



- g) Proposamena Informazio Batzordeko irizpenaren esku utziko da, Plenoaren hurrengo bilkuran gai-zerrendan txertatua izan dadin
- h) Osoko bilkurako hasierako erabakia beharko da gehiengo soilez onartua
- i) Akordioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 15 egun balioduneko epean zehar, interesatuek azter dezaten eta Udaleko Plenoaren aurrean egoki deritzaten erreklamazioak aurkez ditzaten. Akordioa behin betiko onartua izango da epe horretan zehar erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz. Erreklamaziorik aurkeztuko balitz Udaleko Plenoak ebatzi beharko lituzke hilabeteko epearen barruan. (TRLRHL 169.1.art.).
- j) Pertsonalaren eta LZParen behin betiko onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da eta Estatuko Administrazioari eta Erkidegoko Administrazioari helarazi beharko zaio, 30 eguneko epearen barruan (TRRL 127. art.).
- k) LZPa aldatzeko erabakiaren behin betiko erabakiaren aurka berraztertze errekurtsua jartzeko aukera emango da; ostera, plantillari xedapen orokor izaera eman zaionez plantillaren moldaketa edo zuzenketan ez dago berrezarpen-errekurtsorik aurkezterik, administrazioarekiko auzi-errekurtsua baizik.

### 3. Ondorioak

Erabaki proposamenari ezin zaio aldeko txostena eman, hurrengoak bete arte:

- Birjarpen-tasa betetzen dela egiaztatu beharko da espedientean
- Negoziazio mahaiko akta behar da
- Teknikariaren txostena sinatu behar da
- Lanpostuen zerrendan hurrengoak azaldu behar dira: lanpostuaren baldintzak (titulazioa), hizkuntza eskakizunak, hornidura sistemak, ordainsari osagarriak (balorazioan oinarrituta)...
- Kontuhartzailearen aldeko fiskalizazio txostena behar da

Bermeon, 2018ko azaroaren 26an

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

Jasota,

Idurre Bideguren Gabantxo, Alkatea

